

DATU PERTSONALAK

1. Abizena		2. Abizena	
Izena		NAN	
Mugikorra	E-mail		

FAMILIAREN EGOITZA

Kalea				
Zk.	Solairua	Atea	Tel. Finkoa	Tel. Mugikorra
Posta K.		Herria		Lurraldea

EGOITZA IKASTURTEAN ZEHAR

Kalea				
Zk.	Solairua	Atea	Tel. Finkoa	Tel. Mugikorra
Posta K.		Herria		Lurraldea

ZEIN IKASKETETARAKO EGITEN DEN BEKA ESKABIDEA

Gradua	Ikasturtea
Aipamena	

FAMILIAREN DATUAK

NAN	IZEN-ABIZENAK	Ahaidetasuna	Jaiotze data	Egoera Zibila (1)	Lanbidea (2)
		Eskatzailea			

- (1) **E:** Ezkongabea **Ez:** Ezkondua **IB:** Izatezko bikotea **A:** Alarguna **Ba:** Banandua **D:** Dibortziatua
 (2) **I:** Ikaslea **A:** Aktiboa **L:** Langabetua **Des:** Desgaitasuna **J:** Jubilatua **EL:** Etxeko Lanak

- Beka hauek erakunde publikoek (Eusko Jaurlaritza edo Hezkuntza Ministerioa) ematen dituztenekin bateragarriak dira.
- Eskatzaileek beka ofizialak eskatu beharko dituzte, bestela, Eskolak beka ematea ukatuko du.
- Hasiera batean, beka behin-behineko izaeraz ematen da. Erabakiaren behin betikotasuna eskatzaileak emandako datuen egiazkotasunaren arabera izango da. Gerta liteke aldatetako egotea esleitutako kopuruan, edota beka itzuli beharra, eskolak aurrerago egindako egiaztatze-kontroletan horretarako arrazoiak daudela ikusiko balitz.

Aitorpenak

- Deialdiaren oinarriak onartzen ditut.
- Eskabide honetan jarritako datuak benetakoak dira.
- Eusko Jaurlaritzaren edo Hezkuntza Ministerioaren deialdi orokorreko beka eskatu dut.
- BAMEko Beken Atalak egin ditzakeen egiaztapenak onartzen ditut, eta helburu horrekin eskatzen didaten informazio guztia emateko prest nago.

Behean sinatze dutenek baimena ematen diote BAMEko Beken Atalari, eskudun agintaritza edo erakundearen bidez, familiaren errenta edo ondasunak zehazteko beharrezko datuak lortzeko, bitarteko telematikoak edo bestelakoen bidez, horrela, bekaren esleipen egokia egiteko.

BAIMENA. Familia-unitatean 18 urte baino gehiago duten kide konputagarriak

NAN	Izen-abizenak	Ahaidetasuna	Sinadura	Baimena
		Eskatzailea		<input type="checkbox"/>
				<input type="checkbox"/>
				<input type="checkbox"/>
				<input type="checkbox"/>
				<input type="checkbox"/>
				<input type="checkbox"/>
				<input type="checkbox"/>
				<input type="checkbox"/>

Datuen babesa:

Datu pertsonalak babesteko legediaren arabera, BAMEko Irakasleen Unibertsitate Eskolak eskabide honetan jasotako datuak ondoko helburu hauekin bakarrik erabiliko dituela ohartarazi nahi du: diru-laguntza bekak kudeatzeko, eskatzaileekin harremanean jartzeko, erreklamazio eta gorabeheren arretarako eta beka-prozesuaren garapenean beharrezko diren beste helburu batzuetarako.

Bilbao, _____

Eskatzailearen sinadura

Eskabidearekin batera, eskatzaile guztiek aurkeztu beharko dute, derrigorrez, dokumentazio hau:

- Eskabidearen inprimakia behar bezala beteta eta eskatzaileak eta familia unitateko adin nagusiko kide guztiek sinatuta.
- Erroldatze ziurtagiria. Agiri honek familia egoitzan bizi diren pertsona guztien zerrenda izango du dokumentu bakar batean. Familia talde bat baino gehiago bizi bada egoitza berean, dokumentu horretan agertu beharko da. Familia unitateko kideak egoitza desberdinetan erroldatuta badaude, egoitza bakoitzerako erroldatze agiria aurkeztu beharko da.
- Familia unitatean aitortpena egin duten kide konputagarri guztien PFEZaren Aitorpenaren fotokopia osoa.
Garrantzitsua: ez da onartuko PFEZaren aitortpen-proposamenik (familiako kideren batek aitortpen osatua ez balu, dagokion Foru Ogasunera jo beharko du eta PFEZaren behin-behineko likidazioa eskatu).
- Aitortpena egin ez duten kideek aitortpena egin ez dutela egiaztatzen duen Ogasuneko egiaztagiria. Kide konputagarrietako batek PFEZaren Aitortpena aurkezteko derrigorotasunik ez balu izango, Ogasuneko egiaztagiria aurkeztu beharko du, ekitaldi horretako diru sarrerekin.
- Familia unitatean 2017an izan diren diru-sarrera guztien egiaztagiria, PFEZaren aitortpenean jasota ez dauden ondoko kontzeptu hauengatik: errenta eta pentsio salbuetsiak, Gizarte Segurantzako pentsioak edo Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.

Eskatzailea ondoko egoera hauetakoren batean balego, bertan adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

Eskatzaileak independentzia ekonomikoa alegatzen badu:

- PFEZaren Aitorpenaren fotokopia osoa.
- Ikasturtearen hasieraren aurreko urtean altan izan den enpresetako enpresa-ziurtagiria.
- Eskatzailearen jabetzako etxebizitzan bizi delako egiaztagiria, edo ikasturtearen hasieraren aurreko urte osoari dagokion errentamendu-kontratua.

Desgaitasun egoerak

- Foru Aldundiaren Balorazio Atalak desgaitasun maila zenbatekoa den aitortuz emandako ebazpenaren kopia.

Familiaren etxetik kanpo bizi diren ikasleak.

- Errentamendu-kontratua edo ziurtagiria, eskatzen duen bekari dagokion ikasturtean familiaren etxetik kanpo bizi dela egiaztatzen duena.

Familia gurasobakarra.

- Ezkontideen banaketa edo dibortzioaren sententzia judicialaren fotokopia osoa; bertan, pentsioen zenbatekoa eguneratuta azaldu beharko da.
- Alargunaren semea/alaba dela egiaztatzeko agiria (adibidez: heriotza-ziurtagiria).
- Aita/ama ezkongabearen semea/alaba dela egiaztatzeko agiria (adibidez: familia-liburua).

Umezurtz erabatekoa.

- Gurasoen heriotza-ziurtagiria.

Familia ugaria.

- Familia ugariaren tituluaren fotokopia, beka-eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean indarrean dagoena.

BAM BEkak
Ordezlagiria
Diru-laguntza Bekak
Ohiko deialdia
2018 / 2019

DATU PERTSONALAK	
1. Abizena	2. Abizena
Izena	NAN

Eskola honetan aurkeztu du Diru-laguntza beka eskabidea.

Data eta zigilua

Egiaztagiri honek ez du izango baliorik ez badu behar den zigilua.

Oharrak:

- Gogoratu beka emateko azken erabakirako beharrezkoa dela Eusko Jaurlaritzaren (deialdi orokorra) edo dagokien erakundeen beka eskabidea egitea.
- Hasiera batean, beka behin-behineko izaeraz ematen da. Erabakiaren behin betikotasuna eskatzaileak emandako datuen egiazkotasunaren arabera izango da. Gerta liteke aldaketak egotea esleitutako kopuruan, edota beka itzuli beharra, eskolak aurrerago egindako egiaztatze-kontroletan horretarako arrazoiak daudela ikusiko balitz.

"Begoñako Andra Mari" (BAM) Irakasleen Unibertsitate Eskolaren diru-ekarpen nagusia ikasleena da.

Gainera, BAMEk konpromiso sozialari eusten dio eta ahalegina egiten du eskola honetan arrazoi ekonomikoak direla-eta inor geratu ez dadin titulazio bat egin gabe, horretarako gaitasuna baldin badu. Helburu horrekin Eskolak bere aurrekontutik ikasturte akademikoa ordaintzeko diru-laguntzak ematen ditu.

Laguntza hauek bateragarriak dira beka ofizialekin. Beken zenbateko osoa bien batura izango da, hala badagokio. Dena den, denak batera ezin izango dira matrikulatutako ikasten kostu erreala baino handiagoak izan.

Bekak ikasturte akademiko baterako ematen dira eta berriro eskatu behar dira berritu nahi badira.

Beka hauen bidez, Eskolako hilerokoen deskontu portzentuala egiten da; bekak familia unitatearen errentaren arabekoak dira.

Beka Zerbitzuak banan-banan jakinaraziko die ikasleei ebazpenaren berri, gutunaren bidez.

Baldintza akademikoak

Graduko 1. Mailako ikasleak:

- Lanbidean aritzeko gaitzen duen unibertsitate titulaziorik ez izatea.
- Gutxienez 60 kreditutan matrikulatzea.

Graduko 2., 3. eta 4. mailako ikasleak:

- Lanbidean aritzeko gaitzen duen unibertsitate titulaziorik ez izatea.
- Aurreko ikasturtean matrikulatutako kredituen %30 baino gehiago ez izatea gainditu barik. Gainditu gabeko kredituen kostua ez da izango kontuan deskontuan.
- Gutxienez 60 kreditutan matrikulatzea.

Baldintza ekonomikoak

Familiako errentak ezin izango du gainditu Eusko Jaurlaritzak Beken Deialdi Orokorrean (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) ezarritako errenta eta ondasunen muga.

Beka Batzordeak ukatu egin ahal izango ditu beka eskaerak, bizikidetzaren unitateak eta/edo familiak bere gain hartzen dituen gastuen mailatik behera dauden diru-sarrerak justifikatzen baditu.

Eskabide inprimakiak, epeak eta aurkezteko lekuak

Eskabide-orriak eskuragarri egongo dira bai Eskolako Idazkaritzan bai webgunean (www.bam.edu.es).

Bete ondoren, sortzen den inprimakia aurrez aurre aurkeztuko da Eskolako Idazkaritzan **ekainaren 4a eta irailaren 14a bitarteko egun baliodunetan**, jendea hartzeko ordutegiaren barruan.

Mailako ikasleek ezin izango dute bekaren eskaera aurkeztu, matrikula ofiziala egin arte.